



## **Azken urteetan, musikak salto handia egin du soinu artifizialetera, aldaketa bortitza izan da entzule desberdintzat. Onuragarria izan al da?**

*Oihane Tellechea, Ibai Zulueta eta Garazi Ezama*

Azken hamarkadetan, teknologiarekin lotutako aurrerapenek eragin handia izan dute musikaren sorkuntzan, ekoizpenean eta kontsumoan. Digitalizazioak, adimen artifizialak eta internetek musikaren arloa erabat eraldatu dute, eta horrek aukera berriak ekarri dizkie gehiengoari. Nahiz eta, askori erabilera desegokia iruditu.

Lehen, diskoetxe handiek zuten merkatuaren kontrola eta musika zabaltzeko bide nagusiak irratia edo telebista ziren. Gaur egun, edozein artistak bere musika sortu eta mundu osora zabaltzeko ordenagailu edo telefono baten bitartez. Edozeinek erabili ditzazken aplikazioak dira Spotify, YouTube edo Soundcloud.

Gaur egun, ez da beharrezkoa musika tresnetan trebea izatea abesti bat sortzeko. Entzuleak ere aldatu egin dira: algoritmoek gustu pertsonalizatuak antzematen dituzte eta horren arabera gomendatzen dituzte abesti berriak.

### **MUSIKAREN SORKUNTZA DIGITALAREN AROA**

Gaur egun musika sortzea inoiz baino eskuragarriago dago. Ordenagailu batekin eta software egoki batekin, edozein artistak etxean disko bat grabatu dezake. DAW plataformek Ableton Live, Logic Pro, FL Studio, adibidez, estudio profesionalen lana etxeetara ekarri dute, eta horiek independentzia handia eman die musika sortzaileei. Gaur egun musika sortzea inoiz baino eskuragarriago dago. Ordenagailu batekin eta software egoki batekin, edozein artistak etxean disko bat grabatu dezake. DAW plataformek Ableton Live, Logic Pro, FL Studio, adibidez, estudio profesionalen lana etxeetara ekarri dute, eta horiek independentzia handia eman die musika sortzaileei. Gainera, tresna digitalen bidez soinu berriak sortzeko aukera dago: sintetizadore birtualek, samplerrak eta "plugin" ugari erabilia, musikari batek instrumentu askoren soinuak sor ditzake inolako instrumenturik gabe. Adimen artifizialak ere gauza asko egin ditzazke arlo honetan: melodiak automatikoki sortzen dituzten programak daude, baita artistaren estiloa ikasi eta haren antzeko abestiak sortzen dituzten sistemak ere.

### **SARE SOZIALEN ERAGINA**

TikTok bezalako sare sozialek musika industriaren logikak aldatu dituzte. Askotan, kantu baten arrakasta ez da irratia batean zenbat entzuten den kontua. Baizik eta sarean zenbat aldiz erabiltzen den dantza edo erronka batean. Horrek ate berriak ireki dizkie artista ezezagunei, baina, aldi berean, "biral" izateko presioa handitu egin da.

Hainbat artistek euren musika laburtu egiten dute 15 edo 30 segundokoak bihurtzen, deigarriak egiteko funtzioarekin. TikTok edo Instagramen errazago zabaltzeko daitezkelako. Beraz, musika ez da soilik entzuteko: ikus-entzunezko esperientzia bihurtu da, ikusgarritasuna funtsezko bihurtuz.



# “PLUGINEN MUNDU ZABALA ZORAGARRIA DA”



**MIKEL TXOPEITIA ABREGO** Bateria jolea.

1988an hasi zen BAP!! taldean, 1991ean Negu Gorriak-en, 1995ean Parafunk taldean eta 1996an Nacion Reixa taldean.

Gaur egun -Gailu taldean jotzen du bateria eta Anari edo Fermin Muguruza bezalako bakarlariekin jotzen du ere.

## ***Noiz hasi zinen musika egiten?***

Bateria jotzen, 1986an, hamabost urte nituelarik.

Hortik bi urteetara kontzertuak ematen hasi nintzen BAP!! taldearekin.

## ***Nola grabatu zenuen zure lehen abestia/diska?***

Grabazio estudio batean nire lehen esperientzia BAP!! taldearekin izan zen, 89ko amaieran, Mikel Laboaren bertsio bilduma baterako, hurrengo urtean ELKAR zigiluak argitaratuko zuena.

Zatika grabatzen genuen garai hartan instrumentuz instrumentu eta sistema analogikoan, kasu honetan 24 pistatan.

Orain entzunda konturatzen naiz, nekien guztia kanta bakar batean islatu nahi nuela. Kar kar kar!

## ***Zure ustez, asko aldatu dira musika egiteko baldintzak zure lehenengo alditik orainera?***

90eko hamarkadaren amaieran, grabazio-sistema digitala ezartzen hasi ziren estudio guztietan. Horrek iraultza ekarri zuen. Adibidez, analogikoan 24 pistatan edo 48tan grabatu zenezakeen bi grabagailu sinkronizatuz, baina Euskal Herrian inork ez zituen bi grabagailu, oso garestiak zirelako. Digitalean, pista kopurua ia mugagabea izan daiteke.

Ni hasi nintzenez, estudio bat eraikitzea oso jende gutxik egin zezakeen inbertsio bat zen.

Gaur egun, asko demokratizatu da, eta jende askok bere estudioa etxean dauka, emaitza ezin hobea duten lanak egiten.

## ***Noiz izan zan zure lehen kontzertua eta zer zailtasun eduki zenituen gaur egungo teknologiak zuzenduko zituenak?***

Nire lehen kontzertua 88an izan zen. Musikari autodidaktak ginen denok, oso maila musikal eskasekoak. "Punk" eta "hardcore" egiten genuen, hau da, gure gorputzak ahalbidetzen zigun abiadura handiaren jotako "punka". Hori guztia gainetik oihukatuz.

Sinetsiezadazu gaur egun ez dagoela hori konpon dezakeen teknologiarik. Kar kar kar!

## ***Nola egiten zenuten marketing lana iraganean?***

Marketina edo promozio lanak egiteko modua ezagutu genuen "Esan Ozenki" zigiluarekin fitxatu genuenean.

Disketxeak egiten zituen lan horiek.

Egunkari eta musika-aldizkarietan iragarkiak ordaintzen zituzten, argitaratzen zituzten disko-nobedadeen berri emanez.

Diskoak bidaltzen zizkieten musika-kazetariei. Haiekin harreman zuzena zuten. Eta hauek diskoen kritikak idazten zituzten beraien hedabideetan.

Prentsa idatzirako, irratirako eta telebistarako elkarrizketak ere antolatzen zituzten.

**Oraingo teknologiarekin hasi bazina, eduki zenuen arrakasta berdina edukiko zenuela uste duzu?**

Arrakasta errealizazio pertsonalari dagokionez neurtzen badugu, seguruenik bai.

Arrakasta jarraitzaile kopuruaren arabera neurtzen badugu, ziurrenik ez.

**Zure ustez badaude gaur egungo artistak orain dagoen teknologia gabe famatuak ezin izango zirela?**

Ziurrenik ez, ezin izango ziren ospetsuak izan. Agian, musika sorkuntzari aplikatutako teknologiarekin lotutako alderdiez ari zara gehiago, ezta? Hala ere, nire erantzuna aro digitalari buruzkoa da (Internet, sare sozialak...)

**Zer da gehien gustatzen zaizuna gaur egun sortu diren tresnetatik?**

Pluginen mundu zabala zoragarria da. Soinuen eraldaketa den guztiak liluratzen nau.

Zalantzarik gabe, gaur egun ahotsak prozesatzeko modua izugarri gustatzen zait.

**Hasi zinenean oraingo tresna bat erabiltzeko aukera edukiko bazenu, zer erabiliko zenuen?**

Bateria distorsionatuta pedal batekin kar kar kar!!!

**Zuk uste duzu musika bide onean dijoala?**

Bai! Primerakoan! Gaur egungo gazteek aurreko belaunaldietako musikarekin hautsi dutela sentitzen dut.

Uste dut horrela izan behar duela. Guri ere gauza bera gertatu zitzaigun, aurretik genuenetik ihes egin behar genuen. Zure belaunaldiarekin konektatzeko modurik onena dela uste dut.

**Zertan uste duzu irabazi eta galdu duela musikak gaur egungo teknologiarekin?**

Gaur egun, edozein tokitatik iristen zaizun edozein erreferentziatarako sarbidea oso erraza da.

Interneten bilaketa bat nahikoa da munduko edozein lekutako musika entzun ahal izateko.

Galerak alderdi ekonomikoarekin izango luke zerikusia.

Audio-formatuen (Kompakt Disk, Biniloa...) salmenten beherakadaren ondorioz, plataforma digital handiek negozioaren kontrola hartu dute.

